



## Aranburu Jauregian jarri duten erakusketarekin hasi da 'Ipuinartean I'

**LANAK** ▶ Mundu guztiko artistek egindakoak dira; aurkeztu zuten atzo izen bera duen liburua ere

**IDEIA** ▶ Literatura eta plastika uztartzea «polita» zelakoan sortu zen egitasmoa sortzeko asmoa ▶ 6



Aurkezpen ekitaldia, atzo. I. GARCIA



## Pedalei eragiteko makina bat arrazoi daudela ekarri dute gogora Trianguloan

**TOLOSA** ▶ Mugikortasun Iraunkorraren Astearen harira, hainbat ekitaldi egin zituzten atzo eskualdean. Tolosan, irratsaio berezia egin zuten bidegorria, eta, orohar, txirinda erabiltzeak duen garrantzia herritarrei gogora ekartzeko. Iñigo Arbizu esatariak makina bat pertsonaia ezagun ekarri zuten Trianguloan, eta haurrek eta gaztetxoek motorrik gabeko ibilgailuetan ibiltzeko aukera izan zuten bertan jarritako zirkuituan. INIGO TERRADILLOS ▶ 7

TOLOSA ▶

## Bolivian eta Perun amaitu dute Cuerdok eta Jubinek bidaia

Azken geldialdia, Machu Picchun ▶ 4-5



**LANDARRI, S.L**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa  
Tel./Faxa: 943 67 01 14  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria  
Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

UZTURRETIK ▶ RAMON OLASAGASTI

# Pretinho eta Pretinha baino estuago



**B**rasilgo Amazonian bizi dira Joao eta Maria, Maracuja izeneko uhartetxo batean, Belem hiririk gertu. Inguruko guztiek Pretinho eta Pretinha goitezinez ezagutzen dituzte, beltzararak euren hizkuntzan. *Berrria*-ko erreportai batean irakurri dut asteon euren istorio harrigarria, irribarrea eta gogoeta pizten duen horietakoa. Zortzi seme-alaba izan dituzte Pretinhok eta Pretinhak, zortzi, baina harrigarria ez da hori, baizik eta beste 18 adoptatu dituztela. "Noiznahi, merkatutik haur bat be-

sapean duela agertzen omen da Pretinha", dio senarrak irribartsu. Inguruetan askok dute Joao eta Mariaren entzutea, eta batzuek eurenara jotzen dute haurrak adopzioan emateko, badakite-eta ondo hazi eta zainduko dituztela. Eta ez pentsa, Pretinho eta Pretinha ez dira oparotasunean bizi, arrantzik eta palmondoetako acai fruta saltzetik ateratzen dute egunerokoa, baina mahaian beti bada zer jana.

Halaxe zen gure aurreko belaunaldietan ere. Zortzi-hamar seme-alaba hazten ziren baserrietan, gaur egun baino larre motzagoan. Ogia ere besapean omen zekarren lehen ume bakoitzak. Gu berriz, bigarrena datorrela eta, izuak jota, Pretinho baino estuago. Zer aldatu da hainbeste hain urte gutxian? Soziologoek emango dituzte mila

arrazoi, guk ere aurkituko ditugu esplikazioak: gurasoak biak lanean daudela, hipoteka, umearen gastu guztiak, Norvegia eta Europako beste herrien aldean laguntza eskasak eta abar. Baina hala ere, gure guraso edo aiton-amonen aldean hobeto bizi garen ustean gaude denok; eta zer esanik ez Pretinho eta Pretinha baina hobeto. Eta hala ere, bi seme-alaba baino gehiago edukitzea sekulako balentria da egun. Galderak datoz arrapaladan: XXI. mendean umeek ez al dakarte ogirik besapean? Ogia lehen baino garestiago al dago orain? Geure umeei eta geure buruari oparotasunean bizitzea opa diogulako ekaritzen al ditugu ume gutxiago? Zer egingo zuketean Pretinhok eta Pretinhak Euskal Herrian?

IRITZIA ▶ AINHOA AZPEITIA (ZIZURKILGO UDALEKO AGENDA 21-EKO TEKNIKARIA)

# Mugikortasun Astea

**H**erriarrok mugitzeko ditugun beharrak gero eta handiagoak dira. Argi dago lana, aisialdia... di-rela eta batetik bestera joan beharra dugula. Baina pertsona askok horretarako ibilgailu pribatua erabiltzen duenez azken hamarkadetan arazo larriak sortu dira. Izan ere, ibilgailuen zirkulazioa poluzio atmosferiko eta akustikoaren eragile nagusia da hiri gehienetan eta, gainera, arazo handiak sortzen ditu beste arlo batzuetan (espazioen okupazioa, segurtasuna, osasuna...). Egoera kontutan izanik, premiazkoa da herritarren desplazamendu ohi-turak aldatzeari ekitea eta, horrela, funtsezkoa da guztiok gure mugikortasun ohituren inguruan gogoeta egitea.

1998an, esperientzia pilotu gisara, Autorik Gabeko Eguna ekimena hasi zen. Garraioak ingurunean eragiten duen in-paktua frogatzea eta urteroko ekimen baten bidez mugikortasunaren inguruko aukera

berriak bilatzea zituen helburu. Europan, 2000n bultzatu zuen lehen aldiz proiektua Europako Ingurumen komisario Margot Walström-ek. Egun, urtero irailaren 22an antolatzen dute Europa osoko ehunka hiri-rik.

2003an ekimena astebeteko izateko aukera eman zen, Europako Mugikortasunaren Astea. Hala, egunero garapen iraunkorrarekin eta irisgarritasunarekin lotutako hainbat alderdi lantzen dira.

Europako Autorik Gabeko Eguna ekimenaren helburu nagusien artean hiri eta herrietan automobilak zentzurik gabe erabiltzeak eragiten dituen poluzioaren eta energia-baliabideen kontsumoaren inguruko sentsibilitatea areagotzea dago.

Mugikortasunari buruzko ikerketa ugari egin dira eta ondorioak berdintsuak izaten dira beti: biztanle bakoitzak egunero batzabeste egiten dugun desplazamendu kopurua handitzen doa, eta auto-

mobilez egindako joan-etorri guztien %30 ez da hiru kilometrorira iristen. Hiri inguruko ibilbideak egiteko, bizikleta autoa bezain bizkorra da normalean (atetik aterako batzabeste denbora). Eta ba al dakizu tren eta autobus askotan bizikleta eraman daitekeela eta ez dela gehiago ordaindu behar?

Epe motzean gure herri eta hiriko erdiguneak oinezko eta txirindulariei egokitzen joango dira. Egun autoak inbaditzen duen lekuan ez da bizikletarik agertzen. Baina, nola ase, aldi berean, bizikletentzako egokitzapenen eskaria eta automobil-zirkulazioaren *eskakizunak*? Aukera gogorra izaten da sarritan.

Bizikletaren erabilera errazteko, autoari (bai zirkulatzeko, bai aparkatzeko) eskainitako espazioa murrizteko erabaki politikoak herritarrei azaltzea ez da erraza. Hala ere, inkestetan herritarren %70-80k onartzen dugu lehenasunezko tratua eman behar zaiola bizikleta eta garraio publikoari, automobil pribatuaren aurrean.

Eta garrantzitsua da datu bat nabarmentzea: automobil gidariaren beren artean ere, gaur, oso gutxi diote automobilak lehenasun osoa izaten jarraitu behar duela kosta ahala kosta, guztien eta guztiaren aurrean. Sarritan, automobil gidariak berak ere sentibera agertzen dira segurtasunaren eta bizi-kalitatearen argudioen aurrean. Beraz, bizikletarentzako azpiegitura egokiak sortzeak ez du zertan

ekarri dilema mordo bat, espazioaren banaketa era egoki batean egiten bada.

Autorik gabeko herrigune eta hiriak dituen ingurumen onurak egiaztatuta daude eta oinez, bizikletan eta garraio-bide publikoetan ibiltzea gaur egungo hiri-mugikortasunaren ohituren ordeko egokiak direla baieztatuta.

Beste maila batean plan eta garraio-sistema berriak garatzeko esku hartzen duten eragile guztien arteko elkarriketa falta dela uste dut.

Azpiegitura gehiago egiteak ez du garraio eta mugikortasun arazoa konpontuko. Mugikortasuna intermodalitate irizpideekin planifikatu behar dela uste dut eta, sozialki eta ingurugiroari dago-kionez, eraginkorra izan behar du.

Adibidez, errepideetan sortzen diren auto pilaketak bide azpiegitura berriak eraikitzen bultzatzen du. Errepide berriak bere inguruan jarduerak eta ekipamendua sortzea erakartzen du. Azken horrek, bertara hurbiltzeko automobilaren beharra eta distantziak handitzen ditu. Ondorioz, automobil gehiago erosten dira eta berriz ere hasierako egoerara bueltatzen gara: errepideetako automobil pilaketak, azpiegitura berriak eraiki behar izatea...

Mugikortasuna eguneroko denon beharra delako eta herritarren desplazamendu ohiturak aldatzeari ekin behar diogulako, datorren astean Mugikortasun Astearekin bat egintera gonbidatzen zaitut.

IBARRA ▶

## Elkartasun Egunari buruz, batzar irekia

«Gure preso eta iheslariek merezi dutelako», Elkartasun Eguna antolatu dute urriaren 12an Ibarren. Hori prestatzeko, batzar irekia egingo dute etzi, 19:30ean Kultur Etxean. 19:15ean Maite Aranaldere urtebetetze argazkia aterako dute.

VILLABONA ▶

## Jubilatuen Astea bihar hasi eta igandera arte

Jubilatuen Astea ospatuko dute bihartik aurrera herrian. Ospakizunei hasiera emateko, bihar mahai jokoa egingo dituzte bazkide-ek 17:00etan Biltokian.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Allegialdea.** Osasun zentroa: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrein.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun zentroa: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amarozk disp.: 672637
    - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ **DYA:** 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerbitzua: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

**Udaletxean lan egin!**

- Administrari laguntzaileak
- Liburutegi laguntzaileak
- Telefonistak
- Laborategi laguntzaileak
- Mantenimendurako peoiak

**Informazioa:**  
**943428774**

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Zorion agurrak.** HITZA egunkarian argitaratutako zorion agurrak Interneten ikusteko aukera duzu. Zoriondu zure senitartekoa edo laguna bere urtebetetze egunean, ezkontza egunean... eta sarean ere ikusi ahal izango duzu zorion agur hori.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

**Katrina eta kapitalismoa**

Katrina urakanak argitara bota du kapitalismoaren benetako izaera ankerra eta burgesiaren giza bizitzarekiko axolagabekeria. Planetako azken muturrera milaka tropa eta toneladaka armamentu egun batetik bestera bidaltzeko ahalmena du baina ez du bere herriari janari, ur eta sendagaiak ziurtatzeko baloririk, literalki jendea gosez hiltzen utziz.

Laugarren urtez segidan Ameriketako pobrezia eta langabezia handituz dihoaz. Alabama, Luisiana eta Missisipi estatu pobreenetakoak dira, biztanleriaren gehien-goia beltza da eta milaka pertsona apartheidean, txabola eta karabanetan bizi dira. Inongo ebakuazio planik gabe 100.000 pertsonak ez

zuten inongo ibilgailurik hiria uzteko, eskola autobusek bakarrik 20.000 ebakuatzeko ahalmena zuten baina ur azpian geratu dira. Urteak dira ejerzitoko injenieri taldeak New Orleanseko dikeen egoera txarra salatzen zuela, baina, hala ere, Bushen gobernuak azken hiru urteotan arrekontuaren %44,5eko errekorre egin zuen. Benetako kostua 250 milioi dolar, egun bat Iraken. Gerra imperialista baten mantenturako eta korporazio gutxi batzuen interesentzako ahal diren errekorre sozial guztiak egin ditu gobernu kapitalistak. Bertako langile klasea zapalduaz munduko beste langileak zapaltzen ditu. Louisiana kekatu egin zen bertako helikoptero, generadore elektriko edo ibilgailu anfiboak Irake zeudelako.

Ekaitzaren ostean datorrena, ordea, ez da espreski ba-

realdia izan beraiantzat. Egunak egon dira janari eta edari gabe, kolera bezalako gaixotasun hilgarriak zabalduz, estadio batean jendea ohe, mediku, janari eta edaririk gabe; bertakoak infernutik irten nahian kosta hala kosta nora joanik gabe, superbibentziaren legea nagusi. Gobernuaren erantzuna, propietate pribatuaren alde borrokatu, giza bizitzak bost axola! Poliziak erreskate operazioak uzten ditu eta bakea ezartzera doa tiroka, bi autobus bidaltzen dira lehenbailehen Bixolico Madonaren korsea edo Elvisen kapa erreskatatzera, petrolio konpainiei ezin zaie laguntza eskatu, hauek prezioa igotzen dute, McDonalds bezalako enpresen langileen nomina guztiak desagertu dira...

Historian tarteka agertzen dira aurreko gizartearen ustelkeria guztia azaleratzen

duen istripuak, gizakien kontzientzian gizarte hobea go baten aldeko apustua pizten dutena eta urakana sortu zuen bimeleta hegalkada bezala gertaeren katean eskala gora doa. Gobernuaren aurkako mobilizazioak eta aipamenak etengabe handituz dihoaz, gerraren gaitzespena gero eta handiagoa baita soldaduen artean ere. Urteak dira AEBko gobernuak Cuba edo Venezuelaren aurkako kanpaina propagandistikoa hasi zuela baina ekonomia planifikatu batez blokeatuta bizirik irauten duen Kubak ganora erakusten du jendea ebakuatzeko garaian urakan denboraldia datorrenere.

Bushek ondotxo daki bere politikan zulo beltz handi bat dela hondamendi hau, eta laino ilunez estaltzen ahaleginduko da: arreta banda armatuetara bideratzen du, herriaren batasunaren izenean eta

sufrituen izenean politika alde batera uzteko eskatuko du... Kapitalismoaren gezurrek New Orleanseko dikeek baino gutxiago iraugo dute zutik. NBEn egin nahi ziren erreformen porrotak argi erakusten du: burgesiak ezin du rurrerapenik burutu, ezin du bere esklabuen bizia bermatu, ezin du eginkizun historikorik burutu, asmo onez jokatzeko saiaturiko balitz ere burgesiak ezingo luke bere interes ekonomikoetara lotzen duten kateak apurtu, hauek uztea klase parasitoaren heriotza sinatzea litzateke eta. Langile klasea da ezer galtzeko beldurrik gabe iraultzaren eginkizunak bete ditzakeen bakarra. Kapitalismoa amildegiaren ertzean da! Munduko langileak elkar-tu zaitzete! Sozialismoa edo barbariea!

IKER OTERMIN ETA  
MANU ODRIOSOLA ▶ ANOETA

ASTEKO IRUDIA ▶

IÑAKI LAZKANO - IRUTXULOKO HITZA



**Zinemaldian estreinua egin eta Oscar sarietarako izendapena jaso du 'Obaba'-k**

**Iratxe Etxebeste** ▶ Bernardo Atxagak idatzitako *Obabakoak* liburuan oinarritutako *Obaba* filma joan den ostegunean aurkeztu zuten Donostiako Nazioarteko 53. Zinemaldiaren baitan. Hori gutxi balitz, Oscar sarietarako izendapena jaso du filmak

aste honetan bertan —ostiralean zabaldu zen berria—. Argazkian, Montxo Armendariz zuzendari nafarra eta Bernardo Atxaga idazle asteasuarra, filma prentsaren aurrean aurkezterakoan. IÑAKI LAZKANO - IRUTXULOKO HITZA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK** Telf.: 943 65 56 95  
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

**hilberriak eta urteurrenak ▶**



Merezi gabeko sufrimenduarekin joan zara. Eman diguzunagatik, utzi diguzunagatik... Eskerrik asko amatxo eta amona Zu gabe, ez da berdin izanen



**Maria Goldaraz Mendioroz**  
ANDREA

Iruñean hil zen, atzo, 2005eko irailaren 17an, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Gure artean ez bazaudete ere, beti gogoan eta bihotzean izanen zaitugu

LEITZAN, 2005eko irailaren 18a



## AZOKA ▶

## Giro bizia izan zen atzokoan asteroko azokan

Lehenengo gaztainak, Tolosako babarrunak eta pentsamenduak erosi ahal izan ziren

PABLO ALBERDI

Oso egun animosoa bizitu ahal izan genuen atzo Tolosako azokan. Erosle kopurua izugarri igo da azken asteburuotan, eta argi dago dagoneko uda bukatu egin dela gure inguruan. Eskaintza zeharo aldatzen ari da, eta ia asteburuero dago berrikuntzaren bat edo beste.

Atzo aurtengo lehenengo gaztainak, Tolosako babarrunak eta pentsamenduak ikusi genituen, eta badago esatea datorren asteburuan besteren bat izango dugula. Barazkien artean, hala ere, badago oraindik udarako espezieez gozatzeko aukera, eskaintza oso zabala baita.

Perretxiko zerrendan atzo gibelurdina izan zen nagusia kopuruan behintzat, eta, dirudienez, datorren larunbatean egoera mantendu egingo da. Onddoak ere izan ziren, baita ziza horiak eta kuletroak ere.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura Plaza</b>		
Geranio hiedra	1,90	2,50
Erromero	4,00	6,00
Leka landarea	0,35	0,40
<b>Bertako produktuak</b>		
Onddo	10,00	18,00
Gaztaina	2,20	2,50
Tolosako babarruna	8,00	12,00
<b>Produktu ekologikoak</b>		
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00

## GIZARTEA ▶

## 'Ipuinarte' abian jarri da Aranburuko erakusketarekin

Mundu guztiko artisten lanak bisitatu ahalko dira erakustokian; egitasmoa biltzen duen liburua ere aurkeztu zuten atzo proiektuaren bultzatzaileek

IMANOL GARCIA

Irazki elkarteak antolatu eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak bultzatu duen *Ipuinarte* egitasmoa abian jarri dute. Atzo goizean egin zuten erakusketaren aurkezpena Aranburu Jauregian eta arratsaldean izan zen jendearentzako inaugurazioa. Aurkezpenean, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Rita Calderon Irazkiko lehendakaria, Itziar Apellaniz Foru Aldundiko ordezkaria, Santi Eraso Artelekuko zuzendaria eta Antxon Lafont idazlea izan ziren, eta baita egitasmoa aurrera ateratzen aritu diren hainbat lagun zein artista ere.

Bost kontinenteetako 34 artistek parte hartu dute ibiltaria izango den erakusketan. Beste kultura bateko ipuin bat oinarri hartuta artelanak egin dituzte: margolanak, eskulturak, muntaiak... Helburua kulturaren aberastasuna zabaltzea da. Aranburu jauregian azaroaren 5era arte —igandak eta astelehenak salbu— bisitatu ahalgo da erakusketak. Ondoren beste herri batzuetan izango da ikusgai.

Artea eta literatura uztartzen dituen egitasmoa liburu eder batean jaso da eta atzo aurkeztu zuten. Liburudendetan izango da salgai eta baita erakusketak jarriko den lekuetan ere, Aranburu bertan kasu, 15 euroren truke. Horrez gain, kulturartekotasunaren jardunaldiak ere abian jarriko dira aurki. Ostiralero izango da ekitaldiren bat. Hilaren 23an hasiko dira *Go* filma japoniarrarekin; Santi Erasok eta Carmen Martinek hartuko dute parte bertan.



Bildarratz, Calderon, Apellaniz, Eraso eta Lafont, atzo, Aranburu Jauregian egindako aurkezpenean. I. GARCIA

## HECTOR LUNA ▶ 'IPIUARTEAN' EGITASMOKO KOORDINATZAILEA

## «Egitasmo honek elkarren artean ezagutzeko balioko du»

*Ipuinarte* egitasmoa koordinatzaileetako bat izateaz gain, Hector Luna ekuatoriar artistak margolan bat eta eskultura bat ditu erakusketan, euskal mitologiaren pasarte batean oinarrituta.

**Nola sortu zen egitasmo hau martxan jartzeko ideia?**

Alberto Letamendiarekin aritua ginen solasean eta komentatu nion ideia nuela proiektu bat egiteko. Bion artean pentsatu genuen oso polita izango zela literatura eta plastika uztartzea, eta bide horretan elkartu

ginen beste pertsona batzuekin. Proiektua aberasten joan da denon artean.

**Zer ekarpen egin diezaiote *Ipuinarte*-ek Tolosaldeari?**

Funtsean, honek guztiak elkarren artean ezagutzeko balioko du. Beti izaten da arrotzari beldurra, eta etorkinoi mesfidantzaz begiratzen digute. Baina jendea ezagutzen duzun heinean, konfidantza hartzen zoaz, eta besteen kultura eza gutzen joaten zara. Nikuste emigratioaren fenomeno-



I. GARCIA

arekin bat gauza asko globalizatzen ari direla, janaria kasu. **Lan asko egin behar izango zen erakusketako artista guztiak biltzeko.**

Bai, zaila izan da artista guztiak biltzea, mundu guztiaren ordezkaritza izatea nahi baikeen. Urte eta erdiko lana izan da. ◀

## iragarki laburrak ▶

**Correos.** Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, saillapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonon.

**Suhiltzaileak.** Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritzak. Astean

35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Administrari laguntzaileak.**

Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara eta Anoeta. Astelehentik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Haur eskola publikoak.** Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehentik ostiralera. Informazioa

doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

**Laborategiak.** Plaza libreak.

Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

**Administrari laguntzaileak.** Plaza libreak daude udaleterako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

## iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu: 943 65 19 33.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da taberna batean 4 orduz lan egiteko. 675 701 178.

**SALGAI**

**Furgoneta.** Volkswagen Multivan TDI, 102 zaldikoa, SS-AW, egoera

onean. Deitu 617 14 94 41 telefonora.

**Autoa.** Volkswagen Golf 4 salgai, 1.6, 16 balbula, 100 zaldi, gris iluna eta hiru ate. Garajejan egona.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da taberna batean 4 orduz lan egiteko. 675 701 178.

**ESKAITZA**

**Langilea.** Neska bat eskaintzen da arratsaldez lan egiteko. Deitu: 617 149 441.



MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA ▶

# Pedalei eragiteko makina bat arrazoi

Bidegorriak eta txirriak duten garrantzia azpimarratu zuten, besteak beste; gaur Erniopeko bira 10:00etan hasita



Gaztetxoak motorrik gabeko ibilgailuetan ibili ziren Trianguloan jarritako zirkuituan. I.TERRADILLOS

## IÑIGO TERRADILLOS

Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan atzo goizean irratsaio berezia egin zuten Trianguloan; Iñigo Arbizu esataria hainbat pertsonaierekin aritu zen gaiaren inguruan solasean.

Elkarrizketatuen artean Jokin Bildarratz Tolosako alka-tea izan zen; aparkatzeko aukerak, bidegorriaren erabilera, herriko autobusaren berriruntzak... izan zituen hizpide. Mikrofonoen aurrean hitz egin zuten artean, Amaia Jimenez Alde Zaharra-Dendak elkarte-kidea, Ana Erbiti Eskola Agenda 21eko Laskoraingo ordezkaria, Arantzazu Azpiroz txirriindularia, Oriako Txirriindulari Eskolako lehendakaria, Edurne Pasaban, Maider Solana, Donostiako Kalapie elkarte-kidea, Kike Amonarriz soziologoa eta Imanol Ubeda Bide Ertzean-eko kantaria izan ziren, denek ere bidegorrien garrantzia azpimarratu eta txirriak erabiliz uste baino arazo gehiago ekidin daitezkeela gogoratu zuten. Irratsaioaz gain zirkuitu berezi batean ibili ahal izan zuten gaztetxoek, eta arratsaldean pedal festa izan zen eta Gazte Topaguneak antolatutako *Azken tren*a filma ikusteko aukera ere izan zen.

Bestalde, gaur 10:00etatik aurrera Erniopeko Zizurkil-Tolosa-Zizurkil txirriindulari bira izango da.



Iñigo Arbizu esataria Ana Erbiti Eskola Agenda 21eko Laskoraingo ordezkariari elkarrizketa egiten, atzo, Trianguloan. IÑIGO TERRADILLOS

## EGITARAUA ▶ GAUR ETA BIHAR

Urriaren 3a bitarte hainbat ekitaldi izango dira eskualdeko herrietan mugikortasun iraunkorraren inguruan. Gaurko eta biharko ondorengoak antolatu dituzte:

### ERNIOPEKO BIRA

**Gaur, 10:00.** Zizurkildik irtengo dira txirriindulariak, 10:45ean Anoetako ikastolatik igaro eta Tolosara joango dira bide beretik Zizurkilara bueltatzeko.

### VILLABONA

**Bihar.** Ina Rufo abenturazaleak txirriand egindako bidaia *Trans Europea 2001* diapositiba emanaldia.

### IRURA

**Bihartik ostiralera.** Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela-eta San Miguel plaza itxita egongo da hilaren 19tik 23ra 14:00etatik 20:00etara, beraz, autoek ezinongo dute bertatik igaro.

## TOLOSA ▶ GIZARTEA



## La Jarak antolaturiko Kultur Asteak gaur du azken eguna

**I.Terradillos ▶** Atzokoan mahai jokoei hartu zuten protagonismoa La Jarak antolatzen duen Kultur Astearen egitarauan. Gaurkoan, azken eguna izaki, hasteko 11:30ean Extremadurako meza izango da Arrameleko La Jarako Flor taldeak abestuko duelarik, 12:30ean toka eta igel-toka izango dira, 14:30ean herri bazkaria eta 18:30ean Triana de Andoain taldearen emanaldia. IMANOL GARCIA

**GRUPO OTEIC®**

ALTA GESTION  
RECURSOS HUMANOS  
GESTION INDUSTRIAL  
SISTEMAS DE INFORMACION  
SISTEMAS DE CALIDAD,  
SEGURIDAD Y MEDIO AMBIENTE

GRUPO OTEIC. Parque Empresarial Zuatzu, Edificio Igeldo • Planta 1ª  
Tel.: 943 31 68 69 • Fax: 943 31 64 68 • E-mail: oteic@oteic.com  
20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN



TOLOSALDEA GARATZEN Tolosaldearen Garapen Agentziak behar du:

## GERENTEA

(2390 erref.)

Administrazio Kontseiluaren menpean, ardura eta eginbehar hauek izango ditu: **Sozietatearen ordezkaritza, administrazioa eta kudeaketa; zerbitzuen eta pertsonalaren kudeaketa eta sustapena; eta, oro har, gerentzia bati dagozkion eginkizunak.**

Lanpostuaren profila:

- Goi mailako titulazioa (hobe, **Enpresa Zientzietan edo Goi Mailako Ingeniaritzan** lizentziatua).
- **Enpresa Kudeaketaren alorreko prestakuntza** osagarria (M.B.A. etab.) baloratu egingo da.
- **Baloratu egingo da, era berean, eskarmentua erantzukizunezko postuetan, batez ere Administrazio Publikoan edo kudeaketa publikoan.**
- **Euskaraz jakitea: 4. hizkuntza eskakizuna.** Ez daukatenei, azterketa egingo zaie.
- **Taldean lan egiteko eta pertsona arteko harremanetan gaitasun ona** behar da, baita ardura, ekimena, erabakiak hartzeko eta komunikatzeko gaitasuna ere.

### ZER ESKAINTZEN DA?

**Goi Zuzendaritzako kontratazioa, talde dinamiko baten barruan eta garapen pertsonal eta profesionala dakarren proiektua.** Interesatuak idatzi behar dute helbide honetara: 686 PKU. – 20080 Donostia; eta agiri hauek erantsi: **curriculum osoa, prestakuntzaren egiaztagiria, 4. hizkuntza eskakizunarena, eta Bizitza Laboralaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra** egina. Gutunazalean goiko erreferentzia jarri behar da. **Aukeraturako hautagaiak besterik ez zaie erantzungo (gutxi gorabehera, 10en bat egun).**

GRUPO OTEIC-ek, 15/1999 L.O.aren arabera, hurrengo hau adierazten ditu: batetik, zuk ematen dizkiguzun Datu Pertsonalak fitxategi batean sartuko ditugula, gure zerbitzu profesionalak emateko helburuarekin, eta, bestetik, eskubidea duzula, interesatu bezala, datu horietara heltzeko, haiek zuzentzeko edo deuseztatzeko, OTEIC PRODUCTIVIDAD, S.A.ra idatziz joz.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 18a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO  
EGURALDIA



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Tolosa.** Extremadurako Kultur Astearen azken eguna: 11:30: meza extremadurarra Arramelen; 12:30: toka eta igel-toka txapelketak; 14:30: herri-bazkaria; 18:30: Andoingo Triana dantza taldearen emanaldia. La Jara elkarteak antolatuta.  
**Tolosa.** Iturrija jubilatuen elkarteak irteera antolatu du

San Miguclera hilaren 29an. Prezioa: 26 euro (bazkide ez direnentzat 30 euro). Izen-ematea, elkartearen (Euskal Herria plaza).  
**Tolosa.** 1955ean jaiotako aurtun 50 urte betetzen dituzten festa ari dira prestatzen. Azaroaren 12an izango da. Informazioa: 650 693540 (Santi Belloso), 630 908045 (Joaquín Odriozola) eta 669 828818

(Angel Garcia). 75 euro sartu  
Kutxan: 2101 0152 68  
0125058396.  
**Tolosa.** Aitzol udal euskaltegiak matrikula epea zabalik du hilaren 20 bitarte. (10:00-13:00 eta 17:00-20:00).  
**Villabona.** Oinkari dantza taldeak fandango eta arin-arin ikastaroa jarri du marbxan. Eskolak ostegunetan 20:30etik 21:30era burutuko dira eta ikastaroak 3 hilabeteko

iraupena izango du. Lehen eguna irailaren 29an izango da. Gogoratu ikastaroa doan dela. Bestalde, 3 urtetik gorako neska-mutuei zuzenduriko eskolak 10 hilabete iraungo ditu, urritik uztaialera. Izen-ematea: harremanak@oinkari.net, 660 13 93 80 edo Txermingo Ikastolako ganbaran Asteartea 18:30etik 22:30era eta ostirala 19:30etik 22:00etara.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
**Tolosa.** Ebebeste J.M. Gemikako Arbola 3. 943 65 10 40.  
**Leitza.** Jimeno A. Elbarren 52. 112.

**Bihar**  
**Tolosa.** Azpiroz M.L. Amaro azuzena 9. 943 67 51 18.  
**Leitza.** Larraia M.J. Elbarren 95. 112.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako enanen eta iritzien erantzukizunik.



## Jaien azken txanpa

**IBARRA** ▶ Atzoko toka txapelketa, futbol partida eta haur jaialdiaren ondoren Bizi-Nahi jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak jatek gaur izango dute azken eguna. 09:00etan diana izango da, 12:00etan meza, 14:00etan bazkaria eta 19:30ean jaien amaiera. i.t.

## AGURRAK ▶




1980/09/19

2005/09/19

Orain dela 25 urte  
Txindoki magal azpian  
elkarri "baietza" eman zenioten  
gure begien aurrean  
Une latz ugari izanik  
batzuetan gainditu beharrak  
elkarrengan duzuen maitasunak  
arin ditzala alduenak

**ZORIONAK**

Amasako senideen partetik



**URTE ASKOAN**  
Haritz (Alegia).

Bihar 3 urte.  
Zorionak etbekeen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Janire Aranzabe  
(Villabona). Gaur 2 urte.  
Zorionak xagubto!



**URTE ASKOAN**  
Izaro Urreta. Gaur urtebete.  
Zorionak etbekeen, eta,  
berezik, Iratiren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Igor Agirre (Alegia).  
Gaur 3 urte. Zorionak etbeke  
guztien partetik.



**URTE ASKOAN**  
Ainhoa Garikano.  
Gaur 6 urte. Zorionak  
etbekeen partetik.

**HITZA,**  
zorian agurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!



**bidali zure argazkiak!**

**hitza** lehikaketa

**NORA BIDALI**

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Posta arrunta: Argazki lehikaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza  
Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar ditzakezue Tolosaldeko HITZAren egoitzara

Oinarriak [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)  
webgunean eskura ditzakezue

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leizako Arakindegia jatexean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaticoak.

Argazkien erakusketa egingo du, Tolosako ALDEZAHARRA elkarteak